

BAT EGINGO DUT**2. #ByeByeBullying**

Zenbaitetan, zerbait gertatzen ari dela esaten ez badigute, ez gara ohartu ere egiten. Hori sarean askotan gertatzen zaie gazteei: dena joko bat balitz bezala hartzen dute. Baina besteen aurkako ekintza horiek sarean duten eragina handia da, aurrez aurreko tratu txarrena baino askoz handiagoa.

Ciberbullying-a pertsona gazte bati mehatxu egiten diotenean gertatzen da; pertsona gazte hori xaxatu, umiliatu edo mintzen dutenean gertatzen da, edo beste gazte baten jopuntu bihurtzen denean, Internet, sakelako telefono edo beste komunikazio-teknologia telematiko batzuen bidez. Ciberbullying-a izateko, ez da soilik une batean gertatu behar eta bi aldeetan adingabeek egon behar dute.¹

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  **Kezkategia** jarduera egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUA

- Sarearen bidez tratu txarrak eta jazarpena jasateak sortzen dituen sentimenduak ezagutzea.
- Sarean pertsona bati bidegabeki jazartzen edo eraso egiten zaionean egoera horren aurka egitea.

GARAPENA

Baliabideetan proposatzen den bideoa ikusiko da talde handian.

Bideoa ikusi ondoren, irakasleak gaiaren inguruko eztabaida gidatuko du, honako galdera hauetan oinarrituta:

- Nola sentitzen da Natxo, Albertoren argazkia sarean zabaltzen denean?
- Konturatu al dira irudia zabaldu dutenak zer-nolako kaltea eragiten dioten Natxori?
- Zergatik gertatu da hori? Natxoren errua izan da?
- Zer erabakitzen dute Natxori lagundu nahi dioten adiskideek? Zer asmatzen dute egoerari buelta emateko?
- Zuen ustez, halakorik gertatzen al da zuen ikasgelan edo ikastetxean? Zer iritzi duzue horri buruz?
- Pertsona bat Interneten bidez jazarpena jasaten ari bada, nola geldi liteke hori?
- Ciberbullying-a jasango bazenute, pertsona heldu bati esango zenioke? Inori ezer esango ez bazenote, egoerak hobera edo okerrera egingo luke?

¹ [Egon line](#), Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko gida pedagogikoa: erabilera arduratsua, prebentziozkoa eta hezigarria. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua. 2015.



ETA HARREMANAK ONAK EZ DIRENEAN?

Bideoa taldean aztertu ondoren, lauko taldeetan jarriko dira ikasleak eta antzeko egoera bat asmatu beharko dute, emandako gidoiari jarraituz. Benetan gertatutako istorioa baldin bada, hobe.

Istoria garatzeko gidoia hau izan daiteke:

- Pertsona batek ekintza desegoki bat egiten du sare sozialen bidez.
- Arazoa larriagotu egiten da.
- Biktimak laguntza eskatzen du.
- Guztien artean irtenbidea bilatzen diote arazoari.

Talde-lana bukatu ondoren, talde txiki bakoitzeko bozeramaileak bere istorioa irakurriko du talde handian, txandaka. Beste ikaskideek arretaz entzungo dute istorioa. Planteatzen den irtenbideari ekarpenak egingo dizkiote eta denon artean adostuko dute taldeek asmatutako istorioetan zer egin.

Eta harremanak onak ez direnean? blokea osatzeko, hurrengo saioan **Gure dekalogo*a jarduera egingo dute.

DENBORA

Saio bat

BALIABIDEAK

- Bideoa: *Asignatura empatia*²
<https://www.youtube.com/watch?v=dH8N2L0rCuA&app=desktop>
- “#ByeByeBullying” fitxa

² Asignatura empatía, Samsung eta MECD-en proiektua eskola-jazarpenaren aurka.